

«BAKEA PRESTATU»

Bilbao, Donostia eta Gasteizko Gotzainen Pastoral Idazkia

Sarrera

Gure gizarteak irrikaz nahi du bakea eta honen faltagatik sufritu egiten du. Elizak bere-bereak ditu irrika nahiz sufrimendu horiek eta hala adierazten du bakearen alde eten gabe otoitz eginez eta bakea prestatzeko egunero lan eginez.

Oraingo gordintasunak eta iluntasunak eraginda, gainera, herriaren aurrean argi hitz egin beharrean aurkitzen gara. Kristau ugari dabil horren eske. Herritar asko dago horren zain. Artzain izateagatik daukagun zereginaz jabeturik, berriz ere, Ebanjelioaren askatasunez eta borondate bateratzailez mintzo nahi dugu.

Azalpenez azalpen gure gaur egungo egoeraren ezaugarriak kezkarrienak aipatuko ditugu. Horietako bakoitzean soil-soil aletuko ditugu beharrezko zehaztasuna, aukerako balorazioa eta ekinbiderako gomendio zenbait.

1. Adostasun eta harreman ezaren menpean

Maiatzaren 13ko hauteskundeetatik urtebetera alderdi politikoek apenas aldatu dituzten lehendik zituzten desadostasun larriak. Ez datoz bat ez egoeraren azterketan ez jokoan diren arazoei buruzko iritzian ez nahi duten bakeari buruzko kontzeptuan ez bakea iristeko bideetan.

Gure ustez desadostasun politikoa, neurri handian, berebiziko harreman faltak ekarri du eta horren ondorio ere bada. Eguneroko bizikidetzan gauza askotan nahiko ondo konpontzen den gizartea, ostera, banaketa politikoak erdiz erdi jota dago. Azken asteotan ikusten ari gara zenbait alderdi politikoren artean bateratze-ekimenak urratzen ari direla. Baina oraindik aldebateko adierazpenak dira eta ez dira nahikoa. Gori-gori dauden auziei buruzko harremana, gaur gaurkoz ez atzera ez aurrera dago. Herritargoaren zati handi batek ez du ulertzen nola litekeen alderdi politikoek beren harremanetarako gizarte-hedabideetara jotzea elkarrengatik gaizki esaka aritzeko.

Eliza argi eta garbi eta ezbairik gabe talde politiko batzuen eta besteen arteko harremanaren alde dago, alegia, harreman hori akordioa bilatzen duen elkarrizketa iraunkorrean gauzatzearen alde. “Elkarrizketa beti ezinbesteko tresna da eztabaida oro konstruktiboa izan dadin, bai Estatu barneko harremanetan, bai nazio artekoetan” (JP II). Elkarrizketatzeak ez du amore ematea esan nahi. Hain zuzen, gizon-emakumeen arteko harremana izanik (ez ideien edo egitasmoen alderatze hutsa) bere baitan badu indar bat, tirabirak tirabira, elkarrizketan ari direnen arteko jarrerak hurbilarazi ditzakeena. Elkarrizketa bakearen

plaza nagusira daraman bidea da. Elkarrizketari ezetz esateak egiazko bakeari uko egitea esan nahi du, eta egiazko bakea ez datza garaipenean, akordioan baizik.

2. Bakea ez dago terrorismoarekin uztartzerik

Bakeak etsai asko ditu. Errealismo handiz esana dago bakea “zuzentasun ugaria eta indarkeria urria” dela. ETaren indarkeria latza ez dirudi aurki amaituko denik. Azken aldiko agirietan diotenez eutsi egingo diote indarkeriari. Hain zuzen, era desberdinetan gauzatzen da, bortxakeria-era desberdinak burutzen dira: hilketak, estortsioak, mehatxuak...

Arrazoi askogatik berriro diogu ETak nahiz bere inguruko indarkeriak desagertu egin beharko luketela. Larri urratzen ditu bizi-eskubidea, gizakiaren osotasunerako eskubidea eta norberaren segurtasunerako eskubidea. Arerio politikoa garbitzean demokrazia-sistemaren oinarriak janda uzten ditu. Erabat hausten du herritarren gehiengo zabalak tinko agintzen duena. Deseginda uzten ditu familia ugari. Hezurretaraino ikaratzen ditu, eten gabe asaldatzen bere biktima izan daitezkeenak. Lur jota eta etsita uzten du gure herria. Bere ekintzailak berak irteerarik gabeko ataka estuan jartzen ditu. Gure gizartearen irudia lohitzten du. Azken finean, eragozpen handia gertatzen da gure gizarteko desadostasun politikoak behar bezala azaltzeko eta lasaitasunez eztabaidatzeko.

Beraz, ETaren terrorismoari buruzko balorazio moralak ezinbestean oso ezkorra behar du izan. Balorazio honek behar den neurrian eragiten die ekintza terroristak burutzen laguntzen, ezkutatzen edo defenditzen duten pertsonen nahiz taldeei. Salbuespenik gabe, pertsona eta talde sozial nahiz politiko guztiok daukagu ETaren aurrean zertan garen argi eta garbi azaltzeko obligazio morala.

3. Desafioa bizitzari, askatasunari eta sistema demokratikoari

ETaren biktimen artean, azken aldian PP eta PSOEn zinegotziak dira bere atentatuen jo-puntuak daudenak. Hau bereziki larria da demokraziari zuzen-zuzen erasotzen diolako. Demokraziak, bere izaerarengatik, zera eskatzen du: aukera politiko guztiek beren ordezkari propioak eduki ditzatela, askatasunez aukeratuak, erkidego politikoa kudea dezaten. Beraz ba, boto-emaleek egingako aukera politikoa onartu eta horren bultzatzaile izateagatik zinegotzi baten aurka atentatua egitea demokraziari berari eraso latza egitea da. Bide horretatik alderdi politiko batzuek gutxieneko hauteskunde-zerrenda osatu ezinik geratzea lortuko balitz, udal hauteskundeak egin ahal izatea arriskuan eta guzti ipiniz, horrek larri zaurituko luke demokrazia. Itxaro dugu gizarte ia osoaren babesak, alderdiek adostu eta agintariak onartutako segurtasun-neurriak eta hautagaien ausardia zibikoak uxatuko dutela bere garaian beldur ilun hau.

Arriskuan dauden zinegotziak mehatxupean dagoen biztanle askoren zati bat dira. Milaka batzuk dira gure artean ditugun herritarrak beren biziagatik,

segurtasunagatik, askatasunagatik zalantza batean bizi direnak. Guztiok gure buruari galdetu behar diogu ea nahiko sentibera bagaren horiek eta beren familiariek jasaten duten dramarekiko. Sentiberatasun honetatik jaioko da guran horiek defenditu, lagundu eta babesteko beharra. Zuzentasunezko eta elkartasunezko ekintza da. Eginkizun horrek ederki asko neurtuko digu kristauoi gure fedea zenbaterainokoa den.

4. Dena ez da libre terrorismoaren aurka

Irailaren 11 ezkeroztik, munduan areagotu egin dira zuzengabekeriari buruzko kontzientzia, terrorismoaren balio eza nahiz arriskuari buruzko kontzientzia eta ondorioz handiagoa da gizarteak terrorismoari dion gaitzespena. Aldi berean horrek “segurtasuna-giza-eskubideak” binomioa desorekatzeko tentazioa ekarri du, lehenengoaren mesedetan eta bigarrenaren kaltetan. Tentazio horri amore emateko arriskua ez da uste hutsa.

Terrorismori ezinbestean aurre egiteko irmotasuna behar ez bezalako gogortasun bilakatzen deno, malda horretan behera joango gara. Gizarteak terrorismoaren erasotik defenditzeko eskubidea eta eginbeharra dauzka. Defentsa horretan erabili behar dituen bitarteko guztiek moralki zilegiak izan behar dute eta politikoki zuzenak. Ez ditu inola ere gizakiaren eskubide urraezinak azpian hartuko.

Gaizkileetan gaizkileenei ere ez zaie, adibidez, tratu txarrik jasan araziko eta, are gutxiago, torturarik. Vat. II Kontzilioa zorrotza da atal honetan (Ikus GS 27). Puntu honetan beti arretaz eta kontuz jokatu behar dute legelari, agintari, epaile eta Segurtasun Indarrek. Kezkagarria da itzala duten pertsonei eta erakundeei (“Amnistry International”, “Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakundea”) entzutea nola ziurtatzen duten ez direla beti behar bezala errespeta-tzen inoiz gainditu beharko ez lirakekeen muga hauek.

5. Nortasun nazional kontrajarrien arteko gatazka kudeatzea bakea lortzeko

Herri hau baketzeak berekin ditu, jakina, ETaren amaiera eta honi aurre egiteko ahalegin garbi eta bateratua. Baina bakea iristeko konpondu behar diren arazoak ez dira hor bukatzen. Gure herri honetan bakea egiteko dauden zailtasunak ulertu eta gainditzeko ezinbestekoa da aspalditik datorren beste errealitate bati behar bezala heltzea. Ikerketa guztiek behin eta berriz jartzen dute agerian nortasun nazional erabat edo partzialki kontrajarriak eta batzuetan gatazkatsuak daudela. Batzuek diote “hutsik euskaldun” direla; beste batzuek “hutsik espainiar”; besteek “euskaldunago espainiar baino”; besteek, “espainiarrago euskaldun baino”; azkenik, beste batzuek, “euskaldun bezain espainiar”.

Denak eskubide beteko herritar dira erkidego honetan eta begirune zor zaie hala direlako. Nortasunen aniztasun gatazkatsu honek bizikidetzaren formula

bat eskatzen du non talde bakoitzak bere helburu zilegiak moderatu ditzan gizartearen baketzeko, hori askoz balore ederrago eta beharrezkoagoa baita talde guztien helburu guztiak bete ezin izatea baino. «*Guztion etxean leku izan behar du, elkarren kontra estutuz, guztion egitasmotik hitzez edo egitez bere burua kanpo uzten ez duten guztientzat*» (“Bakerako Botoak”, 5.orria). Ez dugu ikusten nortasunak errespetatuko dituen eta bakea prestatuko duen beste biderik. Guztion etxearekiko maitasuna ez dago derrigorrez ezartzerik. Bata bestearekin konfiantzaz egindako harremanetik sortzen da. Nork bere borondatez onartu eta guztiona den egitasmotik janaritzen da. Itsu-itsu indarrez edo legearen agindu hutsez ezarri nahi denean, alferrik galtzen da.

Uste sendo eta zahar hau “Guztion artean bakea guztion alde” goiburuan bildu nahi izan genuen gotzainok 2001eko urtarrilaren 13an Armentian, Bakearen aldeko Otoitz Topaketan. Guztiok izan behar dugu beharrezko dugun eta irrikaz nahi dugun bakearen egile eta onuradun. «*Era bateko eta beste egoitasmo baztertzailetan setatu ordez, herri honek... egitasmo bateratzailea behar du. Benetako bake osoak, tematienak ere bere auziaren alde jartzeko asmoa eta guraria izan behar du*» (“Bakerako Botoak”, 5-6.orriak).

Ezagutzen ditugu horrelako egitasmo baten zailtasun handiak. Baina aukera bakoitza zenbaterainokoa eta nolakoa den aztertu ezker horrek erakusten digu nagusi dela bere nahia kanporatzailea ez, baizik barneratzailea duen herritar multzoa. Alderdi guztietan aurkitzen ditugu boto-emale eta afiliatuak, beren aukerei leial izateari utzi gabe, adostasunezko konponketak biziki nahi dituztenak.

Nortasun kontrajarriz osatutako pluraltasun hau kontu handiz kudeatzen jakin beharra dago “nortasunen arteko gerra” bilaka ez dadin. Madril eta Gasteizko gobernuak, alderdi politikoak eta gizarte-hedabideak gai dira esatez eta egitez gatazkaren sua astintzeko edo itzaltzeko. Gobernu-erabaki batzuek, politikoen zenbait adierazpenek, gizarte-hedabietako hainbat parte-hartzek elkar hartzera ez baino erradikalizatzerara jotzen laguntzen dute.

6. Formula politiko desberdinen balioa eta erlatibotasuna

Herriak onartu eta gehiengoz bereganatu dituen formula politikoek balio handia dute zalantzarik gabe eta gure bizikidetzaren egituratzeko ardatz izan behar dute. Ezin dira beren ordez beste batzuk jarri guztion onerako arrazoi seriorik ez bada. Hala ere, bakearen balio gorenak eskatzen badigu, guztion artean eta guztiontzako eraikiko den beste eredu bat onartze aldera (5.zenb), bakoitzak duen eredu berraztertze nabaria da eredu horietako bakar batek ere ez duela erabateko eta ukiezinezko baliorik. Giza eskubideak errespetatzen dituzten artean eta esparru baketsu eta demokratikoen barruan errotzen eta irauten badute, Elizak ezin ditu ez etikak eskatuta berretsi ezta etikaren izenean baztertu ere. Ondorioz, ez burujabetza nahia, ez autogobernu gehiago edo gutxiagoren alde egotea, ez Espainiako Estatuan lotura handiagoz edo txikiagoz integratzea Elizarrentzat ez dira, printzipioz, baldintza gabeko baiezkora eskatzen duten “dogma

politikoak”. Puntu honetan, pentsamendu sozial kristauak zera baieztatzen du: herritarrek eskubidea dutela aukera hauetako edozeinen alde egoteko eta egiteko askatasuna izatea.

7. Abertzaletasuna eta terrorismoa bereiztea

Huts-hutsik gure gotzain-eginbeharrari gagozkiolarik, antzeko jarrera daukagu abertzaletasunaren inguruko eztabaidari buruz. Abertzale izatea edo ez izatea ez da ez derrigorrezkoa moralaren ikuspegitik ez gaitzesgarria moralari dagokionez. Konbizio kontua da, familiaren historiarekin zerikusia izan deza-keena, kultur-ohiturei lotua eta norberaren sentiberatasunaren arabera. Gure herrian diren sentsibilitateetako bakoitzak begirunez jokatu behar du gainerakoen nortasunarekiko, aintzat hartu behar ditu besteetan gauzatzen diren baloreak, saiatu egin behar du elkar aberastea ekarriko duen elkarbanaketa urratzen eta lan egin behar du biziki jabe gaitezen herri bakar eta plural bateko kide garelako. Gure lurrian ez du inork bere burua gainerakoek baino hiritarragoztat eduki behar halako edo bestelako kultur-ezaugarrien jabe delako, eta beste kultur-ohiturakoak diren herrikideen errezelarik ere ez du egin behar arrotzat hartuz eta, are gutxiago, etsaitzat joz. Inork ez ditu herri honen aztarna bereziak gutxietsi behar, hara nola, hizkuntza eta kultura, ezta ere inork ez du bere baitan errotu behar abertzaleak, ezkutuan bederen, bihotzez terrorismoarekin elkar hartuta daudenik. Makina bat abertzale bada arrazoiz saminduta sentitzen dena, jendaurrean hitzez eta egitez terrorismoa gaitzetsi arren politikoen edo iritzi-emaleen ahotan abertzaletasuna eta terrorismoa sarritan nahasten direlako.

8. Auzi gori-goria eta irristakorra

Espainiako gobernuak tinko erabakita dago, beste alderdi politiko batzuek babestuta, “Alderdien Legea” aldatuko duela. Ordezkariek bereziki bitartez adieraziaz du aurki eskura izan nahi duela Batasuna epaibidez lege kanpo utziko duen tresna legala. Ilegalizazio hori justifikatzeko jendaurrean aipatu dituen arrazoiak funtsean bi dira: ez da bidezkoa ETARI lotutako alderdi batek legearen babesa izatea; lege kanpo jartzeak ahuldu egingo du Batasunak ETARI ematen dion laguntza.

Ez dagokigu arituen artean aldeko eta kontrako iritziak sortarazten dituen legetasmoaren alde teknikoak baloratzea. Azkarregi litzateke une honetan delako testu horren balorazio morala neurtzea, testua ez baitago guztiz finkatua. Ezta ere ezin ditugu alde aurretik ikusi, hori onartu eta indarrean jar dadinean eragin ditzakeen ondorio guztiak, alde batekoak nahiz besteak. Baina, artzain gisa, zinez kezkatzen gaituzte zenbait ondorio ilunek, gure iritziaren alde aurretik argi antzeman daitezkeenak eta saihestu beharko liratekeenak, Batasunaren eta ETAREN artean leudekeen harremanak direnak direla. Ondorio horiek gure bizikidetzari eta bakeari eragiten diote. Kezka hauek ez dira gureak bakarrik. Herri-

tar askorenak ere badira. Gure pastoral zerbitzura dauzkagun joera politiko bateko nahiz besteko herritar gehienek kezka dira.

Bizikidetzaz, dagoeneko arraz gaiztotua, ez ote litzateke behar bada okertuko gure herri eta hirietan? Ziurrenik zatiketa eta elkarren kontrako borroka gordindu egingo lirateke. Ez dugu ikusten gizartean horrelako giroa pizteak nolatan egingo liekeen mesede segurtasun premian dauden ahulenenei: mehatxatutakoei. Aitzitik beldur gara segurtasun hori ez ote den, tamalez, eskasago bihurtuko. Ez gara, ezta gutxiago ere, zuhurtasun arduratsu hau daukagun bakarrik.

9. Bakearen aldeko aukera egin

Bakea da gizarte honen helburu behinena. Bakearen baitan ipini behar dira gure herrirako zilegi eta onuragarri ere badiren beste helburuak. Beraz ba, beharrezkoa da bakearen aldeko aukera egitea.

Bakearen aldeko aukera egiteak esan nahi du, bake hori ez dela erabili behar beste interes batzuen menpe jarritz. Inork ez du bakea jolaserako hartu behar, herri-eredu jakin baten truke eskainiz. Inork ez du bakea atzeratu behar hurbilagoko hauteskunde-helburu batzuen probetxuan. Gaur egun alderdi politiko orori zera eskatzen zaio: izan dezala beharrezko kemena eta eskuzabalatasuna prest egon dadin “urritzeko” bakea “ugaritu” dadin.

Bakearen aldeko aukera egiteak alderdi politiko bakoitzari eskatzen dio “nere” herri-egitasmoa murrizteko prest egotea elkarren arteko harremanean eta elkar-trukean “gure” arteko egitasmoa jaio ahal dadin. Alderdi politiko bakoitzak eskubidea du bere proposamenei eusteko eta horiek defenditzeko, baina aldi oro bakearen on gorenaren baitan jarri behar ditu. Norberaren egitasmoa absolutu bihurtzea ez da bakera gerturatzeko modua; beregandik urrutiratzeke era da.

Bakearen aldeko aukera egiteak esan nahi du gizarte-ekimenei eraginkortasunez babes ematea, beren barruko pentsamolde politikoaren aurretik bakea jarritz bideak urratzen saiatzeko direnean, noizbait gure herrian jasaten ari garen ameskaizto luze eta nekoso hau uxatu ahal dezaten.

Bakearen aldeko aukera egiteak berekin du distentsio- eta gerturatzeko keinuak eskaintzea. Presoei beren zigorra sorterritik hurbilago betetzen utziko liekeen espetxe-politikak, adibidez, gizatasuna erakutsiko luke, batez ere gurasoekiko eta senideekiko.

Bakearen aldeko aukera egiteak bakerako heziketa dakar, batez ere belau-naldi gazteentzat; hauengan pentsamendu kritikoa ernarazten du, kontzientzia etikoa pizten, giza-biziaren aldeko jarrerara errotzen, bestearekiko begirunea eragiten, herri plural berberetako kide direla sentitarazten, gizartea adiskidetzaren aldeko konpromisoa hartzera eramaten ditu gazteak bakerako heziketak.

Bakearen aldeko aukera egiteak berekin du kristaudentzat bakearen alde eten gabe otoitz egitea, helburu hori lortzeko gure zailtasunak Jaunari aurkeztuz eta zeregin hori eraikitzeko gure eskuak eskainiz.

Jabeturik gure pastoralgintzak benetako konpromiso bakegilea daramala bere baitan, elizbarruti gotzainok berriro egiten dugu, daukagun zereginetik, lan-ildo hauei bultz egiteko asmo sendoa. Bereziki kristauei eskatzen diegu eskuzabaltasunez jarrai ditzatela eta tinko burutu ditzatela.

10. Itxaropena biziberritu

Herri baten itxaropena funtsezkoa da. Ez dago zailtasunen aurrean itxaropen sendo eta iraunkorrik gabeko etorkizun hoberik. Bizirik dagoenean kapaz da zailtasunetatik beraietatik kemen handiagoa ateratzeko. Oso urritua dagoenean abaildura eta geldotasuna eragiten ditu.

Herri honen itxaropena ahulduta dago, herria penatzen duten arazoengordintasuna, luzamendua eta konplexutasunagatik. Elizak lagun dezake eta lagundu egin behar du itxaropen historiko honi eusten Espiritu Santuarengandik hartu baitu agortezinezko itxaropen-altxor eskatologikoa eta hau gai da benetako itxaropen historikoak pizteko.

Itxaropenaren Andre Maria, Bakearen Ama ere badena, izan dadila gure itxaropenaren euskarri eta bakearen poz-emale.

Bilbao, Donostia eta Gasteiz, 2002ko maiatzaren 29a

✘ **Ricardo**, Bilboko gotzaina
✘ **Joan Maria**, Donostiako gotzaina
✘ **Miguel**, Gasteizko gotzaina
✘ **Carmelo**, Bilboko gotzain laguntzailea